



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ZIENTZIA
ETA TEKNOLOGIA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE CIENCIA
Y TECNOLOGÍA

KUATERNARIOA: INGURUGIRO ALDAKETAK ETA GIZA OINATZA MASTERRA

www.ehu.eus

AURKEZPENA ETA HELBURUAK

Kuaternarioa (Q) gure planetaren historiako azken 2,6 milioi urteei dagokien aldi geologikoa da. Klima-oszilazio asko, azkarrak eta biziak ditu ezaugarri. Eskala handiko aldaketa horien ondorioz, gure planeta itxuratu zuten prozesu geologiko garrantzitsuak gertatu ziren Lurraren gainazalean aldi horretan, besteak beste, glaziarren sorrera eta suntsipena, itsas mailaren aldaketak, ibai erregimenen gorabeherak, prozesu pedogenikoen aldaketak, izaki bizidunen lekualdaketak eta desagerpenak, etab. Aldi berean, gure espeziea ere agertu zen, eta, eboluzionatu bitartean, bizi-ingurunea eraldatzeko gaitasun gero eta handiagoa bereganatu zuen.

Kuaternario-ikasketei buruzko interesa bost arrazoi nagusirengatik handitu da.

Hauexek dira: interes geoarkeologikoa duen erregistro sedimentarioaren kalitatea; landa-tekniken eta laborategien aurrerapen metodologikoa; datazio absoluturako eta erlatiborako hainbat metodoren garapena; ozeanoaren hondo sakoneko sekuentzia sedimentarioen ikerketa; eta herritarren interesa ingurumenaren eta klimaren aldaketetan (planetaren etorkizunaren gaineko ziurgabetasunarekin batera). «Kuaternarioa» masterra originala da, Geologia, Historiaurrea eta Antropologia arloetako ikastaroak bateratzen dituelako. Paleoringurumen-berreraiketetan, klimaren azken aldaketetan eta gure planetaren nahiz gure espeziearen eboluzioan (zenbait denbora-eskalaren arabera) interesa duten ikasleei zuzenduta dago.

SARBIDEA

Honako gradu edo lizentzia hauek: Geologia, Historia, Geografia, Geografia eta Historia, Ingurumen Zientziak, Itsas Zientziak eta Biologia.

IRTEERA PROFESIONALAK

Arlo profesionalean: aholkularitza-enpresak; ingurumenean, ondare geologikoan, ondare paleontologikoan eta ondare arkeologikoan jarduten duten administrazio publikoko zenbait agentzia; ikerketa-zentroak eta nazioarteko erakundeak. Ikerkuntza-arloan, doktorego-ikasketak egin aurretiko urratsa da.

ONINARRIZKO INFORMAZIOA

Eskolak emateko lekua:

Zientzia eta Teknologia Fakultatea (Leioa) eta Letren Fakultatea (Vitoria-Gasteiz).

Irakaskuntza mota:

Eskolan bertakoa.

Hizkuntza:

Gaztelania. Master amaierako lana gaztelaniaz, euskaraz edo ingelesez.

Gutxi gorabeherako prezioa: 2.150-2.350 euro.

Egutegia:

Urritik irailera, goizez eta arratsaldez.

IRAKASTORDUAK/IRAUPENA

60 ECTS / ikasturte 1 (hiru urtetan egin daiteke, ikasturte bakoitzean 20 kreditu gutxienez)

Nahitaezko Gaiak 15 ECTS kreditu	Hautazko Gaiak 30 ECTS kreditu	Proiektuak / Ikerketa-lanak 15 ECTS kreditu	Gutzira 60 ECTS kreditu
--	--	---	-----------------------------------

PRESTAKUNTZA PROGRAMA

1. Modulua. Sarrera (nahitaezkoa, 15 ECTS).

- Kuaternarioaren hastapenak.
- Gizarte ehiztariak eta biltzaileak.
- Gizarte ekoizleak.
- Ondarea eta paisaia. Proiektuen lantze eta garapena.

2. Modulua. Metodologi alderdiak (hautazkoa, 30 ECTS/6 irakasgai).

- Kuaternarioko prozesuak eta erregistro sedimentarioa.
- Klima-eta ingurumen-aldaketaren adierazle paleontologikoak.
- Paleolitiko ingurumen-adierazleak eta izaera mineralogiko eta geokimiko. antropikoen adierazleak.
- Material sedimentarioak ikertzeko metodoak: aplikazio praktikoak.
- Ingurumenaren aprobetxamendu antropikoa: baliabide biotikoak.
- Kultura materialaren eboluzioa eta analisia.
- Antropologia Fisikoa.
- Paleolitiko adierazpen grafikoak.
- Material natural eta antropikoen analisirako diziplina anitzeko metodoak.

Master amaierako lana (nahitaezkoa, 15 ECTS).

HARREMANETARAKO

Arduraduna: Alejandro Cearreta

Tel: 946012637

Posta elektronikoa:

alejandro.cearreta@ehu.eus

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK / BABESLEAK

